

Arrue proiektua (3)

2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen garrantzi handiko liburua (290 orrialde) hiru hizkuntzatan: "Ikasleak hiztun, 2011ko Arrue proiektua". Arrue proiektuaren txostena da, bai eta iruzkin luze bat ere, 23 hizkuntzalarik osatua.

Arrue proiektua ikerketa bat da ikasleen hizkuntza jokamoldeaz, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egina, Lehen hezkuntzako 4. mailan (9-10 urte) eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. mailan (13-14 urte), ikasle guziengan. Orotara 35.844 ikasle. Hemen lehen mailako CM1 et kolegioko Hirugarrenekoan adinak dira. Heburua zen 2011ko ikasleen hizkuntza erabileraren diagnosis egitea.

Arrue proiektua 3 urratsetan aurkeztuko dugu:

1. inkestako ikasleen ezaugarriak;
2. euskararen erabilera ikasle haueganik;
3. hizkuntzalari batzuren gogoetak.

Aditu batzuren gogoetak.

Euskararen erabilera errexten duten faktore zenbait

Koerlazioa gertatzen da emaitza guziak binazka kurutzatuz. Ezaugarri iraunkorrak agertzen dira eta erakusten dute zein faktoreek errexten duten euskararen erabilera ikasleengan. Euskaren eskolako erabilera hobeki ulertzeko emaitzak konparatu dira 2 aldagaien arabera:

- lehen hizkuntza (euskara, gaztelania edo biak) eta
- hizkuntza-eredua (D, B edo A).

Arrue 2 artikulua emaitza orokorrak eman dizkigu euskararen lekuaz eskolako bost egoeratan. Hemen ikasleak barne ziren lau egoerak hartu ditugu :

- ikasgelan irakaslearekin,
- ikasgelan ikaskideen artean,
- jolaslekuan irakasleekin eta
- jolaslekuan ikaskideen artean.

Ikerketan 4 egoera haiek aztertutak dira aipatu 6 aldagaien arabera. Konparaketa ez da biziki irakurgarria. Irakurgarriago litzateke aldagaika atxikiz 4 egoeretako emaitzen bana bestekoa.

Konpareketen metodologia

Hemen ere ez ditugu bereizi 6 mintzamolde ezberdinak, beti euskaraz, euskaraz gehiago, bi hizkuntzetan berdin, euskaraz gutiago, beti gaztelaniaz, beste hizkuntza batean. Aldi oroz euskararen lekua kantifikatu dugu. Metodo honen ahulezia da hiztunen mintzamoldeak galtzen ditugula. Gainera erdara baztertuz elebitasunari garrantzia kentzen diogu. Neurtzen dugun gauza bakarria euskararen lekua da, ez baita guti.

Aldagai bakoitzarentzat erreferentzia eginen dugu bana besteko orokorrari. Faktore bakoitzaren eragina neurtuko da banabeste orokorrarekin duen ezberdintasunaren arabera. Ikus ditzagun Arrue 2ko emaitza orokorrak.

Euskararen erabilera eskola giroan(%)

	Ikasgelan irakasleekin	Ikasgelan ikaskideekin	Kanpoan irakasleekin	Jostalekuan ikaskideekin	Bana beste orokorra
10 urtekoak	77	64	68	37	62
14 urtekoak	65	36	56	24	45

- 10 urtekoentzat emaitzen bana besteko orokorra %62 da.
- 14 urtekoentzat emaitzen bana besteko orokorra %45 da.

Lehen hizkuntzaren eragina

Hemen kontuan hartzen dugu ikasle bakoitzaren ezaugarri bat, lehen hizkuntza, hots hiru urte arte etxean erabili duen hizkuntza. Hiru egoera gerta daitezke, lehen hizkuntza euskara da bakarrik, edo euskara gaztelaniarekin, edo gaztelania bakarrik. Hurrenez hurren, proportzioak hauexek dira 10 urtekoentzat : %20, %14, %62 eta beste hizkuntza bat %4. 14 urtekoen proportzioak berdintsu dira : %20, %15, %60, eta %5.

Neurtzeko zein den lehen hizkuntzaren eragina eskolako euskaren erabilerari begira, egoera bakoitzeko bana bestekoa konparatuko dugu bana besteko orokorrarekin : **%62** 10 urtekoentzat, **%45** 14 urtekoentzat.

Euskaren erabilera eskolan (%)

	10 urte	14 urte	10 urte	14 urte	10 urte	14 urte
Bana besteko orokorra	62	45	62	45	62	45
Lehen hizkuntza	Euskara		Euskara gaztelaniarekin		Gaztelania	
Bana bestekoa eta ezberdintasuna	87 +25	78 +33	73 +11	56 +12	53 -9	33 -12

Zer agertzen da taula honetan ?

- Lehen hizkuntza euskara bakarrik delarik, eskolako euskararen erabilera **%87** da bana beste 10 urtekoengan. **%78** 14 urtekoengan. Beraz bana besteko erabilera baino **%25** eta **%33** gehiago, adinaren arabera.

- Ikasleen lehen hizkuntza euskara delarik baina gaztelaniarekin batera, euskarazko erabileraren irabaziak **%11** eta **%12** dira adinaren arabera, bana besteko orokorrari konparatuz.

- Aldiz lehen hizkuntza gaztelania bakarrik dutenek eskolan euskara erabiltzen dute 10 urtekoen **%53k** eta 14 urtekoen **%33k**, hots **%9** eta **%12**ren beherakada, bana besteko orokorrari konparatuz.

Ohargarri da haurtzaroan euskara bakarrik erabili dutenek orain eskolan euskara erabiltzen dutela askoz gaztelanian sortu direnek baino gehiago. Ezberdintasuna **%34** da 10 urtekoentzat eta **%45** 14 urtekoentzat. Jatorriz elebidun direnek ere **%20** punduren hobekuntza badute lehen hizkuntza gaztelania dutenei konparatuz.

Hizkuntza ikastereduaren eragina

Orain ikus dezagun zein den hizkuntza-ereduaren eragina euskaren eskolako erabilerari begira. Hona ikasle inkestatuen banaketa D ereduan (murgilbidea), B ereduan (elebitasuna) eta A ereduan (gaztelania nagusi) :

- 10 urtekoetan %64, %29 eta %4 :

- 14 urtekoetan %59, %28 eta %13 hurrenez hurren.

Emaitzak taula batean bildu ditugu, beste aldagaiekin bezala, eredu bakoitzean dabilzan ikasleen bana bestekoak, euskara erabileraren bana besteko orokorrarekin konparatuz. Eta bi adin taldeak bereiziz.

Euskaren erabilera eskolan (%)

	10 urte	14 urte	10 urte	14 urte	10 urte	14 urte
Banabeste orokorra	62	45	62	45	62	45
Hizkuntza ikasteredua	D eredua: murgilbidea		B eredua: elebiduna		A eredua: 5 oren astero	
Bana bestekoa eta ezberdintasuna	75 +13	62 +17	42 -20	30 -15	9 -53	4 -41

Taula honek zer erakusten digu ?

- D ereduan dabilzanek leku handia ematen diote euskarari, 10 urtekoek **%75** eta 14 urtekoek **%62**. Adinaren arabera **%13** eta **%17** gehiago bana besteko orokorrari konparatuz ; **%33** eta **%32** gehiago B eredukoei konparatuz ; **%66** eta **%58** gehiago A eredukoei konparatuz.

- B ereduan dabilzanek leku hertsia ematen diote euskarari. Adinaren arabera **%42** eta **%30** ; askoz bana besteko orokorraren azpitik, **%20** eta **%15** galduz.

- A eredukoek emaitzak izigarri ahulak dira euskararen erabileran. Adinaren arabera **%9** eta **%4** ; harrigarri bana besteko orokorraren azpitik, **%53** eta **%41** galduz.

Nabari da hizkuntza-eredua dela ezertu diren hiru aldagaietarik eraginkorrena, ezberdintasun handienak erakusten baititu bana besteko orokorrarekin

konparatuz. Zergatik hori? Alde batetik D ereduan da euskara hobekienik ikasten, zeren eta murgilbideak ikasleei eskaintzen baitie euskarari buruzko esposizio luzeena. Bestalde D eredua hautatu duten gurasoek (eta ikasleek) erakusten baitute euskaraen aldeko motibazio baikorrena.

Ondorio pedagogikoak

Oraingo paradigma pedagogikoa da "euskara eskolan ikas gero kanpoan erabiltzeko". Zorigaitzez alderantziz gertatzen da, gero eta erdara gehiago erabiltzen baita eskolatik urruntzean : 10 urtekoek ikazgelan irakaslearekin %77, lagunekin %54, jolaslekuan %37, etxeko mahaian %25, gizarte sareetan %26, kantariekin %15, telebistaren aitzinean %14. Halere, oro har eskola euskararen gotorlekua da.

Zer egin egoera hobetzeko?

Mikel Zalbide Eukaltzainak bi proposamen eskaintzen dizkigu, bizikletaren paradigma eta arnaguneen erabilera.

1. Euskara erabiliz ikasten da bizikletarekin bezala. Tresna ezagutu behar da baina ibiliz ikasten da ibiltzen. Eskolan denbora gehiegi iragaiten da entzuten eta irakurtzen. Baina ahozko ekoizpena ez da ebaluatzen, erabilerari buruz inportanteena delarik.

2. Arnaguneak espazio batzu dira non ere normal, erretx eta atsegin baita euskraz mintzatzea. Arnasa hartzeko gunea edo xoko ekologikoa euskararentzat. Edo naturalki, ikastolan, familian, herrian. Edo oasi bat sortuz erdal basamortu zabaletan, Baionan kantuz, Herri Urrats, Gliss eguna, aisialdi edo kultura ekintzak.

Ipar Euskal Herriari begira

Ezin dugu konparaketarik egin Ipar Euskal Herriarekin, oraindik ez baitu ikerketa orokorrik egin jakiteko ikasleek euskara nola erabiltzen duten. Oraingo inkestek hizkuntza gaitasuna neurtzen dute Europako estandarra erabiliz. Interesgarria eta beharrezko litzateke ikustea ikaskuntzaren berehalako eragina ikasleen mintza-moldean eskolan, etxean, kanpoan. Etxepare Lizeoan berriki egin den inkesta batek ustekabe onak hitzematzen dizkigu.